

Euskotrenen Burdinbidearen Euskal Museoak hiru lurrun-tren jarriko ditu martxan datorren asteburuan

Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa den Euskotrenen Burdinbidearen Euskal Museoak hiru lurrun-tren jarriko ditu martxan datorren asteburuan.

Lurrun-trenak honako ordu hauetan irtengo dira museotik (Azpeitia) Lasara:

- **Larunbata, ekainak 25:** 12:00etan eta 17:30ean.
- **Igandea, ekainak 26:** 12:00etan.

Museoak honako ordutegi hau izango du:

- Astartetik ostiralera: 10:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:30era.
- Larunbatetan: 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era.
- Igande eta jaiegunetan (astelehena izan ezik): 10:30etik 14:00etara.

Burdinbidearen Euskal Museoak Europako tren multzo onenetakoa du ikusgai bere instalazioetan. Era guztietako ibilgailuak ditu: lurrun-lokomotorrak, dieselak eta elektrikoak; automotorrak eta hainbat motatako bagoiak.

Era berean, Urolako Trenaren garai bateko tailerra tarteko, Euskadiko makina-erremintaren multzorik osatuenetako bat eskaintzen du eta XIX. mendearen amaieratik trenbidean erabilitako uniformeen erakusgaiak ditu, bai eta munduko trenbide-erlojuen bildumarik onenetakoa ere.

Jendearentzako informazioa

- Burdinbidearen Euskal Museoaren helbidea: Julian Elortza kalea 8 (20730 AZPEITIA-GIPUZKOA).
- Informaziorako telefonoa: 943 15 06 77
- Faxe: 943 15 07 46
- Helbide elektronikoa: museoa@euskotren.eus
- Webgunea: www.euskotren.eus

Igorpen data: asteazkena, 2022ko ekainaren 22an